

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza^{info}

Asteazkena, 2013ko otsailaren 6a. IX. urtea. 2.538. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Kilometroetako abestia aurkeztearekin batera euskara erabiltzera deitu dute

Tolosako inauteriak hastear direla, 'Ahora!' kanta aurkeztu du Laskorain ikastolak; euskaraz jakin arren, gaztelaniara salto egiteko dagoen joera zuzendu behar dela esan dute

Abestia herrian bertan sortua izateari garrantzia eman diote: Mikel Zelaiak eta Jokin Albisuak egin dute doinua, Juantxo Arakamak hitzak eta Xabier Zeberioek ekoizpena **02**



Igartua, Manterola, Zeberio, Urteaga, Mintegia, Zelaia eta Arakama abestiaren aurkezpenean, atzo, Donostian. ITZEAURKIZU

Auzokonposta kanpaina jarri dute martxan Amasa-Villabonan

Etxeko hondakinen sorrera «auzolanean murriztea» dela helburua azaldu dute udaletik **05**

Herritarren partaidetzari buruzko bigarren topaketa egin berri dute

Gipuzkoako Foru Aldundia eta hainbat udalerri, tartean Tolosaldekoak, izan dira **06**

Ibarrako Gaztetxearen 20. urteurrena ospatuko dute urtean zehar **07**

inauteriak '13

Bizi inauteriak hitza^{info} rekin!

Sartu tolosaldea.hitza.info webgunean eta inauterien atalean informazio guztia izango duzu: egitaraua, albisteak, elkarrizketak, bideoak, bitxikeriak, garraio publikoaren inguruko informazioa, farmaziak...

*Inauterietan HITZA egunero argitaratuko dugu

Eta gogoratu Ostegun Gizeneko txupinazoa zuzenean jarraitu dezakezula,
11:45ean tolosaldea.hitza.info webgunean.



Naiara Mintegia, Unai Igartua, Arantxa Manterola, Xabier Zeberio, Juantxo Arakama eta Mikel Zelaia, kantuaren aurkezpenean. I. URKIZU

«Inauterietan ere ez dugu aitzakiarik, euskara ahora ez eramateko»

Aurkeztu dute Kilometroak 2013ko abestia, Donostiako Koldo Mitxelena kulturunean

Itzea Urkizu Tolosa

Euskara bihotz eta burutik ahora eramateko aitzakiarik ez dela aldarrikatu dute, beste behin, 2013ko Kilometroetako antolatzaleek. Laskorain ikastolako ordezkariak *Ahora!* abestia aurkeztu dute, horrela, Euskal Herri osoan zabal dadin.

Donostiako Koldo Mitxelena kulturunean egindako agerraldian, abestiaren sortze proiektuan parte hartu duten Xabier Zeberio, Juantxo Arakama, Mikel Zelaia eta Naiara Mintegia izan dira, eta baita Kilometroak kultur elkarteko lehendakari Arantxa Manterola eta Tolosako Kilometroak 2013ko Unai Igartua koordinatzailea ere.

Pasa den asteburuan, labetik

atera berri, Tolosako tabernetan entzungai izan zen jada, *Ahora!* leloari lagunduko dion doinua. Honen harira, Arantxa Manterolak kantua otsailean plazaratu izana azpimarratu du: «Laskorain ikastola ziztu bizian ari da lanean, Kilometroak jaia antolatzan, normalean aurkezpen hau maiatzean edo ekainean egiten baitugu». Bide honetan, gainerakoa ere oso ondo prestatuta izango dutela esanez, datorren urrian izango den Kilometroak jaia berrikuntzez bete eta etorriko dela aurreratu du Manterolak.

Berrikuntza hauek, besteak beste, ibilbideari lotuak izango dira, Unai Igartua koordinatzaileak azaldu duenez: «Kilometroak eguna bera irauli nahi dugu nolabait, eta zirkuitua dinamikoago egin, gazteei begirako jarduerak parte hartzaileak antolatuz». Dena den, honen inguruko informazioa aurrerago emango dutela zehaztu du.

Izan ere, kantua bera otsailera-ko esku artean izatea, berrikuntza nabarmentzat jo du Unai Igar-

tuak: «Abestia antolakuntzako puntu garrantzitsuetako bat izaten da, eta aurtzen inoiz baino lehenago plazaratu dugu; Tolosako Inauteriak Euskal Herri osoan ezagunak dira, eta aukera ona iruditu zaigu, abestiak oihartzuna izan dezan.

Tolosatik Euskal Herrira

«Tolosarrok badakigu, gure urtea inauterien arabera antolatzen dugula: inauterien aurretik hau, edo inauterien ondoren bestea... Beraz, inauteriak oso egun egokiak iruditu zitzaizkigun abestiari indarra emateko», azaldu du Xabier Zeberio: «Hasiera batean zaila zirudien, baina lortu dugun».

Ekoi izpen musikalaran arduraduna izan da bera, eta Kilometroetako kantua egiten parte hartzea «ohore handia» izan da Zeberioentzat.

Horrela, hasiera-hasieratik, kantua osatzeko batzordeak, zenbait irizpide garbi izan zituela azpimarratu du musikariak.

Batetik, kantua Tolosan bertan sortua izatea irizpideetako bat izan da, bertan musika munduko jende asko baitago. Era berean, gazte jendeari tarte bat eman nahi izan diote, eskarmendun musikariengana jo aurretik; belaunaldi berriei aukera bat emanez. Azkenik, Laskorain ikastolak abestian presentzia izatea lehentasunezko irizpideetat hartu dute, eta hain zuzen ere horregatik, Lask abesbatzak nahiz hainbat ikasle ohik parte hartu dute grabaketan.

Tolosatik, beraz, eta tolosar, euskal herritar nahiz kanpotarrentzat sortu dute, bi hilabetez landu eta Bonbereneako estudio-

an grabatutako abestia: «Nik asko ikasi dut gazte hauekin, izuzten da, eta aurtzen inoiz baino lehenago plazaratu dugu; Tolosako Inauteriak Euskal Herri osoan ezagunak dira, eta aukera ona iruditu zaigu, abestiak oihartzuna izan dezan».

Elkarlanean eta jende askoren artean osatutako abestia da, beraz, aurtengo Kilometroak festakoa. Mikel Zelaia eta Jokin Albiak sortu dute doinua, eta hitzak eta ahotsa, berriz, Juantxo Arakamarenak dira. Soinu teknikari lanetan, Karlos Osinaga *Trap* aritu da, eta parte hartzaileek bereziki nabarmendu dute bere lana, «hainbeste jenderen lana abesti batean ederki uztartu duelako; ez zen erronka makala».

Hauez guztiez gain, Bonberenea Txarangak, Alos Quartet-ek, Lask abesbatzak, Imanol Ubedak, Natalia Humusek, Jone Otxoak, Aritz Mendietak nahiz Pirritx eta Porrotzek beren alea jarri dute.

Lan talde baten erronka

Euskaraz sendatzen da euskararen gabezia, hala dio Juantxo Arakamak sortutako kantuaren le-

trak. Eta Tolosako kaleetako hikitza-egoera izan du, berak, sormenerako iturri: «Leloaren nondik norakoak eman zizkiguten kantua egiteko, eta horrekin bat eginez, Tolosan nahiz beste hainbat lekutan, euskaraz jakin arren gaztelaniara salto egiteko dagoen joera hori, akats hori, zuzendu egin behar dela pentsatu nuen. Letrak gordinki azaltzen du hori».

Erronka handia izan da, Arakamarentzat, «abesti honekin zabaldu nahi den mezuari hitzak jartzea», eta baita txaranga nahiz harizko laukote batekin elkarlanean aritzea ere. Horrela, bat dator doinuaren egileetako bat den Mikel Zelaiarekin: «Kantua betiko ildotik alden du egin da pixka bat, eta txaranga ere bere ohiko erregistroak aldatu behar izan ditu. Gainera, rap-reggaea, abesbatza, txaranga nahiz orkestra uztartzea lortu dute guztiak. Oso gustura gaude», azaldu du Zelaia.

Ahora! leloa musikaren bidez zabaltzeko erronka honi, berriz, ilusioz heldu diote Lask abesbatzako zuzendari Naiara Mintegia, eta baita abesbatzako gazte txoek ere: «Gogo handiz aritu gara lanean, eta oso aberasgarria izan da».



Euskaraz jakin arren, gaztelaniara salto egiteko dagoen joera hori zuzendu behar da»

JUANTXO ARAKAMA
Hitzen egilea

Lan honen guztiaren ondoren, sare sozialetan nahiz tabernetan entzungai dago jada kantua, eta <http://www.kilometroak.net> webgunetik ere jaitsi daiteke.

Honekin batera, gainera, Unai Igartuak, inauteriak euskaraz bizitzeko deia egin du agerraldian, eta Euskal Herria plazan jarri dute Kilometroetako taberna nahiz jantokia gogora ekarri du. Bide beretik, Amasa-Villabonako Jesusen Bihotza ikastolak, Laskorain ikastolari antolakuntzan laguntzeko proposamena egin die herritarrei, eta <http://www.jesusenbihotzaikastola.com> atarian izena emanahal izango dute billboardonatarrek.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Bonbereneako estudioan burutu dute grabaketa. HITZA

Tolosako inauteriak iristear diren honetan, askok behar baino gehiago edango dute edo elikadurari ez diote erreparatuko. Guztiari aurre egiteko senda belarrak erabili ahal dira, azeri buztana, osina edo kardabera, adibidez.

Osasuntsu egoteko gakoa, amonen esku

Rebeka Calvo

Inguruko belarrek dohain asko dituzte, baina garrantzitsua nola eta noiz erabili behar diren jakitea da, eta baita neurria hartzea ere. Hori da, hain justu, bere burua Oiartzungo Xabi huts batekin aurkezten duen senda belarren jarraitzaile sutsuak bere hitzaldietan azaltzen duena.

Pasa den larunbatean egon zen Orendainen, eta bertan 15 bat pertsona izan ziren, gazte zein heldu.

Senda belarren inguruko azalpenak ematen hasi aurretik, ematen dituen argibideak beti «amonen gidaritzapean» ematen dituela dio. «Gure amonak dira jakinduria hori guztia gordetzen dutenak. Eta hortik abiatzen naiz. Era berean, 'normala' zer den eta zer ez den, zer den gaitza, alegia, jakin behar dela gogoratzten dut. Arazoari garai heltzea ere oso garrantzitsua dela ere esaten dut. Lasaitasuna behar da, zergatiak jakin behar dira... eta hori ez digute behin ere esaten», esan du.

Zentzu honetan, gehiegikeriak egiten direnean, gehiegi jan edo edan esaterako, bihar hasiko diren inauterietan askok egingo duten moduan, gorputzari lasai utzi behar zaiola dio. «Gure organoei eragindako kaltetik osatzen lagun behar zaie, eta baraualdia, edo gutxiago jatea behintzat, oso baliagarria izan daiteke», esan du. Era berean, azeri buztana, osina eta txikori belarra (edo kardabera) ere onak izan daitezkeela dio. «Baina hobereana baraualdia egitea da», nabarmendu du.

«Funtsezkoena, dena den, gu eta lurra gauza bera garela jakitea da», esan du Xabik. Hau da, lurrrari on egiten dionak gizakiari ere on egingo dio bere hitzetan. Eta horregatik senda belarrez baino, naturak ematen duenaz hitz egitea du gustuko; «esaterako, ura eta lurra, buztina, lur bizia da, eta erreka bazterreko lohi naturalak oso onak dira gorputzarentzako».

Garaian garaikoa jatea

Senda belarrak dira Xabiren ustez, benetako sendagaiak, eta oso garrantzitsua da naturak garai bakoitzean ematen duena hartzea: «Ezinbestekoa baita garaian garaikoa jatea, lurrak ematen diguna».

Gizartean dauden ideia asko



Oiartzungo Xabi Orendainen larunbatean eman zuen hitzaldian. A.I.

baztertu eta bide berrietara ere ireki beharraz hitz egin du oiartzuarrak: «Aukera berriak eman behar dira. Letxuga edo kardabera (txikori belarra), esaterako, ez dira konparagarriak. Kardabera osasunerako bizi osagai oso onak ditu; bitaminak, mineralak... ezin da bata eta bestearen artean konparatu, eta jendeak ez daki. Zergatik ez egin entsalada kardaberarekin?».

Baina nola jakin hori? «Nik amonen jakinduriaz edan dut da kidana jakiteko, eta jendeak ere gauza bera egin behar duela uste dut: amonei galdetu», gaineratu du. Izan ere, Oiartzungoaren ustez, etorkizuna galderak egitea da, «esperimentatzen joatea». «Nik erantzun batzuk ditut; senda belar hau zertarako erabili daitekeen, edo beste horren erabilpena... baina etorkizuna galderak egin eta probak egitea da». Horrela animatu nahi du jendea senda belarren inguruan beldurrik uxatu eta hauek erabiltzen hastera, horretarako inguruan galde-tuz «gu eguneroko jana eta edana gara, zer, noiz eta nola hartu behar dugun jakitean dago gakoa».

Neguko senda belarren ingurua galdetuta, orain txerri belarra ateratzen ari dela dio. Erreka bazter guztietan dago, baina jendea konturatu ere ez dela egiten. «Hezetasuna du gustuko eta horregatik egoten da erreka bazterretan. Ura gertu izaten du beti. Ukendu bat egin daiteke hezurretako minarentzat edota zirkulazio txarreko kontuentzat. Diges-

tio txarrerako, gibelak behar adina lan egiten ez badu edo giltzurrunak ez direnean behar bezala aritzen ere lagungarria da», esan du.

Osina ere nabarmendu du, honek ere mineral eta bitamina asko dituelako, eta uste txarrak atzean uzteko eskatu. «Beti entzun dudana izan da osinarekin kontuz ibili behar dela odol mehetzen duelako. Baina Maria izeneko amonak esan moduan, dena neurrian da ona. Neurria hartzeko gutxitik gehiagora hartzen joan behar gara, eta beharra ez badugu, ondo bagaude, probatzen joan gaitezke. Osina jangarria da, baina bitaminak ez gaitzeko beratzen jarri behar da, sua ez da erabili behar».

Senda belarrak hartzeko moduen inguruan ere usteak atzean uzteko esan du. Askotan ukendurra jotzen da, baina badaude beste modu batzuk ere: «Erre, bainu bat hartu, lehortu zorro batean sartu eta ondoan utzi arnasatik hartzen joateko...».

Fama txarra duten belarren artean alka aipatu du, eta ados ez dagoela esan: «Txakurrek eta katuek jaten dute eta? nola izango da txarra! baina egia da, bortitza da, ebaki egiten du, eta beraz, zenbat jan behar den kontrolatu behar da».

Xabik orain miura belarrarekin bueltaka ari dela onartu du. Bukatzeko, mota asko daude eta oso ona da odol presioa jaisteko edota bihotzeko erritmoa egokitzeko laguntzeko.

Irudia ◊ Bidegoian



EGUNEKO ZENTROKOEKIN

Bidegoiango eguneko zentroko aitona-amonak bideo emanaldi bat ikusteko aukera izan zuten udalak antolatuta. 15 pertsona elkartu ziren, 12 aitona-amon eta 3 zaintzale, eta herrian egindako eta udaleko *Youtuber*en kontuan dituzten bideo batzuk ikusi zituzten. «Oso gutura egon ziren ordubeteko saioan eta hurrengo emanaldia ea noiz izango den galdezka bukatu zuten», esan dute udaleko arduradunek. Beste saio bat antolatzeko asmoa ere badu udalak. HITZA

Korrikaren aldeko eguna egin dute Adunan

R.C. Aduna

Adunako korrika batzordeak uskararen aldeko ekimena laguntzeko eguna antolatu zuen larunbaterako.

Ikurrinaren aldeko mendi mar-txa ez zuten egin eguraldiarengatik, eta trukean, frontoian, esku pilotan ibili ziren. Kultur aretoan ere herritarrek egindako antze-lan baten inguruko *Upelera* pelikula ere ikusi zuten. Era berean, materiala saltzen aritu ziren, bazkaria egin zuten, eta arratsalde-

an, Mus Txapelketa egin zuten. Justino Zubeldia eta Dabid Mian-go, eta Alejandro Madinabeitia eta Patxi Olasagasti izan ziren finalistak eta beraz, Adunatik bikote bat pasako da eskualdeko kanporaketara.

Era berean, aurrera begira Korrika batzordeak beste hainbat ekitaldi antolatuko dituela aurreratu du. Horien berri aurrerago emango badute ere, Loatzo musika eskolarekin eta herriko eskolarekin elkarlanean izango direla argitu dute.



Mus Txapelketako finalistak, sariak eskuetan dituztela. HITZA

Felipe Otañoren argazkiak, Irrintzin

R. C. Villabona

Villabonako Irrintzi elkartearen bertako bazkide den Felipe Otañoren argazkiak ikusi daitezke.

Donostiako Behobia lasterketan parte hartzen duten elbarriei ateratako argazkiak bildu ditu

Otañok. Erakusketa astelehene-tik ostiralera bisitatu daiteke, 19:00etatik 20:00etara, inauterietako egunetan izan ezik, hau da bihartik, otsailaren 7tik, hilaren 12ra.

Irrintzi elkarteak Kale Nagusiko 27. zenbakian dago.

Tolosako Super Eko dendak urteak daramatza eskualdeko herritarrei gertuko zerbitzua eskaintzen; orain erosketak saretik eta euskaraz egiteko aukera jarri dute, eta erositakoa 24 ordutan etxera eramaten dute doan

Erosketak saretik egiteko aukera

Eneritz Maiz Tolosa

Tolosan dagoen Super Eko denda ezaguna da. Dagoeneko hogeitortik gora daramatza tolosarrei eta Tolosaldeko herritarrei zerbitzua eskaintzen. Urte hasierara erronka berriekin iritsi dira, eta abenduaz geroztik mar txan dute erosketak sarearen bidez egiteko zerbitzua, www.supereko.net helbidean. Erosleak, Internet bidez erosketak saskia betetzen du, eta nahi izanez gero ordubetera etxean izango ditu produktu guztiak, eta etxera eramateko zerbitzua doakoa da.

Teknologia berrietara salto egin, gaur egungo gizarte eredura gerturatu nahi izan dute. Juan Garcia da kudeatzailea eta Jon Jauregi marketin arduraduna. Bizimodua asko aldatu dela eta, moldatzeko aukera egin dute. Bezereen gehiengoa eta eskualdea euskalduna dela kontuan izanik, euskarari ere garrantzia eman diote. Sortu berri dute atari berria euskaraz egina da: «Bezeroak eroso sentitzea nahi dugu», gaineratu du Jauregik.

Zortzi bat hilabete lehenago hasi ziren lanean, eta azterketa bat ere egin zuten bideragarria zen ikusteko. Garai zail hauetan, inbertsio ekonomiko handia egin behar izan dute Internet bidezko zerbitzua martxan jarri ahal izateko. Era berean, ordea, lan postuak ere sortu dituztela adierazi dute, eta aurrerago besteren baten beharra izatea ere aurreikusen dute. Jakitun dira Internet bidez jendeak gero eta gehiago erosten duela. «Urtetik urtera gehiago izango dira, eta guk hor erego behar dugu, eta esperientzia izatea beharrezkoa izango da», argitu du Garcia.

Super Eko saltokiak era eta mota guztietako produktuak eskaintzen ditu. Denetarik dute beraien apaletan eta mota askotako produktuak dituzte, eta zenbait



Jon Jauregi da Super Eko dendako internet bidezko zerbitzua aurrera eramateko arduraduna. E. MAIZ

@ Dendara gerturatu beharrik izan gabe, www.supereko.net helbidean saltokian bertan aurkitzen diren produktuak erosi daitezke. Produktu freskoen xehetasunak jakin nahi izanez gero edo edozein zalantza argitzeko 943 65 09 01 telefono zenbakira deituz egin daiteke. Erosketa etxean noiz jaso nahi den bezeroak aukeratzen du.

www.supereko.net

produktu, gainera, ez dira edozein saltokitan aurkitzen. Dendan egin ohi den moduan, Internet bidezko bezeroak ere, aurkitzen ez duen produkturen bat eskatzeko aukera izango du. Produktu freskoei dagokionean, berriz, erosleak unean bertan moztuak jasoko ditu etxean.

Produktu freskoak ere bai

Internet bidez zerbitzua eskaintzeak gertutasuna ez du oztopo izango. Bertako produktuak izateari garrantzia ematen diote,



Haragi eta barazki freskoen eskaintza zabala dute Super Ekon. E. MAIZ

eta, besteak beste, atzeritarrei begirako hainbat produktu ere saltzen dituzte. Bezeroa, nahiz eta Internet bidez aritu erosketak saskia betetzen, astelehenetik ostiralera, 08:30etik 13:00era eta 17:00etatik 19:30era, eta larumba-

tetan, 09:30etik 12:00etara, beraiekin hitz egiteko aukera izango du. Zein produktu fresko dituzten jakiteko, edo edozein produkturen inguruko kezak argitu ahal izateko.

Banaketako ordutegia, berriz,

astelehenetik ostiralera 09:30etik 13:00era eta 17:00etatik 20:00era izango da, eta larunbatetan, 09:30etik 13:00era. Bezeroak berak, erosketa egiteko unean zehaztuko du noiz eta zein ordutan nahi duen erosketa etxean jasotzea. Eta erosketa egin eta 24 ordutan etxean izateko aukera eskaintzen dute Super Ekon.

Erosketa egiteko erregistratu egin beharko da, eta behin erosketa eginda, artxibaturik geratuko dira egindako erosketa zerrendak. Jon Jauregiren esanetan, «behin lehen erosketa eginda, antzeko produktuak kontsumitzen ditugu eta ordu erdi bat nahikoa izango du bezeroak erosketak saskia betetzeko». Oso erraza dela argitu dute, eta egindako erosketak zerrendak berrereabili ahal izango dira produktuak gehituz edo kenduz.

Zozketak ere egiten dituzte erosleen artean, eta eskaintzak ere iragartzen dituzte. Oraindik hobetzen da eskaintza zabaltzen jarraitzeko asmoa dutela nabarmendu dute.



HITZAK harpidedunentzat **2 sarrera** ditu

Otsailak 16 • larunbata
19:15
Donostiako Ilunben

LAGUN ARO GBC
Blancos Rueda Valladolid
saskibaloia partida



sarrerak

harpidedunentzat **HITZA**



Zozketan parte hartzeko deitu gaur 14:30ak baino lehen **943 65 56 95** telefono zenbakira.



Eskualdeko ikastetxeak inauterietarako mozorroak prestatzen ari dira

Anoetan herri ikastolako ikasleek gaur egingo dute inauteri jaialdia, 19:00etan, kiroldegain

Asier Imaz

Tolosaldeko ikastetxeek urtero urtero bat egiten dute inauterietan, eta batez ere Ostegun Gizenarekin. Aurtengo hitzordurako orduak falta diren honetan, mozorroak ongi prestatuak dituzte.

Anoetako herri ikastolakoak izango dira goiztiarrenak, gaur egingo baitute inauteri jaialdia. Urtero gai bat hartzen dute ardatz, eta aurtengorako, Biodibertsitatea aukeratu dute. HHkoek Ipar poloa irudikatuko dute; LHkoek, Basamortua, Indiar erre-serba eta Afrikako sabana, eta DBHko ikasleek, Euskal Herriko basoak eta itsasoa.

Amasa-Villabonako eta Ibarra-ko ikasleak Ostegun Gizenean irtingo dira kalera. Uzturpe ikastolan goizean jaialdia egingo dute, eta ondoren plazara jaitsiko dira. Eguraldi txarra egingo balu, Belabieta kiroldegian geldituko dira. Herriar guztiei festan parte hartzeko gonbidapena luzatu die, 11:15ean plazan hitzordua jarritz. Amasa-Villabonan herrikuntza txaranga izango da, eta arratsaldeko jaialdia bukatu ostean, herrian barrena ibiliko da inauteri doinuak zabalduz. Jaialdian herriko bi ikastetxeetako haurrek hartuko dute parte.

Asteasura eta Zizurkilera inauteriak ostiralean iritsiko dira. Herriko hiru ikastetxeek bat egingo dute Zizurkilen, elkarrekin Ostiral Mehea ospatzeko. Asteasun, aldiz, egitarau oparoa antolatuko dute. Asteasuarrak, anoetarren antzera, gai baten inguruan mozorrotuko dira, ondorioz, Asteasuko inauterien ardatza Tolosako Diana izango da, hori baita aur-



Duelako bi urteko Anoetako haurren Ostegun Gizeneko jaialdia. HITZA

↓ Egitarauak

ANOETA

Gaur, otsailak 6

■ **19:00.** Inauteri jaialdia kiroldegian. Emanaldian zehar saski eder bat zozketatuko da.

AMASA-VILLABONA

Bihar, otsailak 7

■ **15:00.** Villabonako ikastetxe-etako haurrek prestatutako emanaldia Errebote plazan. Eguraldi txarra egiten baldin badu, Olaederra kiroldegian.
■ **Ondoren.** Herrian barrena kalejira ibiliko dira, Iraunkorrek txarangaren doinuekin dantzatu.
■ **17:00.** *Dr. Dolittle 3* filma euskaraz, Gurea aretoan. Sarrera doakoa izango da.

ASTEASU

Etzi, otsailak 8

■ **15:15.** Ikastolatik herrira jaitsiko dira, haurrekin batera.

ten mozorrotzeko aukeratu duten gaia. Hala eta guztiz ere, pizamaz, musikariz, baserritarrez edo libre janzteko aukera dagoela zehaztu dute Asteasutik.

■ **16:30.** Merienda.

■ **17:00.** Kalejira herriko kaleetatik barrena. Diana dantza eta txarangaren laguntza.

■ **Ondoren.** Zezen suzkoa.

IBARRA

Bihar, otsailak 7

■ **09:00-10:30.** Uzturpe ikastolan ikasleen jaialdia.
■ **10:45.** Mozorrotu ondoren, jai giroan eta musikarien doinuekin plazara jaitsiko dira.
■ **11:30.** Bi urteko ikasleekin elkartu ondoren, plazan, txistorra banatuko dute.

ZIZURKIL

Etzi, otsailak 8

■ **15:00.** Jesusen Bihotza, Pedro Mari Otaño eta San Millan ikastetxeetako haurren desfilea.
■ **Ondoren.** Emanaldia egingo dute plazan. Eguraldi txarra eginenez gero, Pedro Mari Otaño ikastetxean.

Bost herri hauetako ikastetxeek gaur, Tolosakoekin batera, beste hainbat herritako ikasleek ere inauteriak ospatuko dituzte Ostegun Gizenean.



Alaitz Bilbao eta Rosa Arregi kanpainaren aurkezpen ekitaldian. A. IMAZ

Amasa-Villabonako Udala, gaikako bilketa bultzatuz

Zero Zabor helburua lortzeko bidean autokonposta kanpaina jarri dute martxan udaletik

A. Imaz Amasa-Villabona

Amasa-Villabonako udalbatzak 2013ko aurrekontuak onartu zituen iragan astean, eta horietan, 125.000 euroko partida azaltzen zen Zero Zabor politikan sakontzeko. Udaletik azaldu dutenez, diru hori ez da soilik atez ateko hondakin bilketa sistema ezartzeko, gaikako bilketa sakontzeko baizik.

Zero Zabor politika horren barruan, auzokonpostaren aldeko apustua egin nahi du Amasa-Villabonako Udalak: «Helburua, etxeko hondakinaren sorrera auzolanean murriztea da». Auzokonposta bultzatzeko, Rosa Arregi Ingurumen zinegotziak eta Alaitz Bilbao Ingurumen teknikariak herrian martxan jarriko duten kanpaina aurkeztu zuten iragan ostiralean.

Arregiren esanetan, auzokonposta gauzatzeko udalak beharrezkoak diren material guztiak

emango ditu, eta «modu egokian» egiten denaren jarraipena egingo du: «Jakina da hondakin onena sortzen ez dena dela. Konpostatzeak hondakin organikoak ongari bihurtzea suposatzen du. Baina guztiok ez dugu aukera etxean konposta egiteko. Horregatik, bizilagunen artean, eta eremu publiko bat horretarako egokitu, autokonpostatze bateratua egiteko aukera emango dute zabalduko diren gune horiek».

Izena emateko baldintzak

Auzokonpostan parte hartu nahi duten herritarrek 943 69 21 00 telefono zenbakira deitu dezakete, edota udal bulegoetara hurbildu, 08:00etatik 14:00etara. Izena emateko epea otsailaren 22an amaituko da. Horretarako hainbat baldintza betetzea eskatuko du udalak, hala nola, antolatuko den ikastaroan parte hartzea, Amasa-Villabonan errodaturik egotea, eta eskaera etxebizitzaren jabearen izenean egitea.

Izena ematen duten lehendabiziko 60 familiek izango dute ikastaroetan bat-batean hasteko aukera. Gainontzekoak, itxarote zerranda batera pasako dira, eta ondorengo hilabeteetan hasi ahal izango dira ikastaroetan.

Mauka
GAURKO ESKAINTZA

Asteburu erromantiko bat Areatzako bainuetxean

ALAITZ BIDAIAK
Sanharen 17-21
2100 Erenaga (Guzkoa)
Tel: 943.34.41.9
mau@astzubak.com
www.astzubak.com

80€

berria

www.mauka.eu

TONBOLA
15.000 eta 25.000 euro
Sanharen 17-21 (Guzkoa)
(Partida guztiak)

TABERNA

PLATERTXOAK eta OGITARTEKOAK
egun guztiaren zehar. Eserleku ugari!

11.000 eta 25.000 euro
Sanharen 17-21 (Guzkoa)
(Taxa on erantsita)

Kilometroak 2013
Zatuz inauterietan!

Herritarren partaidetza areagotu egin dela diote 'Herritarrek' saretik

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta hainbat udalek, tartean eskualdekoak, sarearen topaketa egin berri dute

Imanol Garcia Landa

Herritarrek izeneko partaidetza sareak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta udalek osatzen dutenak, urte bete egin du «herritarren partaidetza sakonduz eta sustatuz». Aldundiko eta udaletako ordezkariak herritarren partaidetza urrats berriak emateko hausnarketa egin dute Hernanin egindako bigarren topaketan, eta bertan Tolosaldeko hainbat udalerrietako ordezkariak parte hartu dute. *Herritarrek* martxan jarri zenetik, aldundiaren eta 77 udalen arteko lankidetzari esker, 130 partaidetza esperientzia baino gehiago gauzatu dira. Aldunditik azaldu dutenez, «partaidetzak nabarmen egin du gora, izan ere, aurreko legegintzaldian, 30 esperientzia besterik ez zituen laundunaldia».

Topaketan partaidetza sistemetan sakontzeko eman beharreko urratsak izan dituzte hizpide, hausnarketa egin ondoren herrien tamainaren arabera azken hilaletan. Guztira, aldundikoez gain, 48 udalerriko ordezkariak hartu dute hausnarketa proiektuan: alkateak, zinegotziak eta teknikariak. Lau multzotan ba-



Herritarrek sarearen bigarren topaketaren une bat. HITZA

natuta egin dute hausnarketa. Herri txikien multzoan 17 herri hartu dute parte, tartean Tolosaldeko 11 udalerriko ordezkari eta teknikariak: Aduna, Abaltzisketa, Albiztur, Altzo, Orendain, Gaztelu, Hernialde, Alkiza, Berrobi, Baliarrain eta Ikaztegieta. Herri txiki-ertainen multzoan 9 herri hartu dute parte, horietatik lau eskualdekoak: Zizurkil, Irura, Anoeta eta Asteasu. Herri ertainen multzoan 13 herri hartu dute parte, horietatik bi eskualdekoak: Amasa-Villabona eta Ibarra. Herri handien multzoan, berriz, bederatzik herri hartu dute parte, tartean Tolosak.

Azken urtean jasotako esperientzia oinarri hartuta, aurreantzean, herriek, bakoitzak bere beharren arabera, partaidetza nola sistematizatu aztertu dute topaketan. Udalen funtzionamenduan oinarrituta, herrietako

partaidetza sistema diseinatu, sistematizatu eta arautzea da helburua. Horretarako, demokrazia ordezkariak (informazioaren kudeaketa, herri batzarrak...), demokrazia parte hartzailea (aurrekontu parte hartzaileak, proiektu zehatzak, batzordeak...) eta demokrazia zuzena izan dituzte aztergai.

Herritarrek sareko ordezkariaren ustez, partaidetzak «iraunkorra izan behar du, herrien beharrei erantzun diena, balioetan oinarritua, integrala izango dena, gertukoa, ulergarria, irekia eta etengabe elikatuko dena». Horretan garrantzitsua dela deritzote «herritarrek udalerraren subjektu aktibo direla jabetzea, udalak herritarrengana gerturatzea eta ateak zabalik edukitzea, informazioa modu gardenean herritarren eskura egotea eta udal erabakietan partaidetza sustatzea».



Tolosako 2 zenbakidun Loteria Administrazioako langileak, saria bertan banatu dela azaltzen duen kartelarekin. IGL

'La Primitiva'k 861.000 euro banatu ditu Tolosan

Hiru lagunaren artean egindako txartelak jaso du saria; 2 zenbakidun Loteria Administrazioan egin dute apustua

I. Garcia Landa Tolosa

Tolosako hiru familia izan dira 861.000 euro irabazi berri dituztenak *La Primitiva* zozketan parte hartuz. Tolosako 2 zenbakidun Loteria Administrazioan egin zuten apustua, eta larunbateko zozketaren sei zenbakiak asmatu dituzte. Loteria administrazioako Alazne Goikoetxeak azaldu duenez, «oso pozik gaude saria eman dugulako. Ohiko bezero bati tokatu zaio, herrikoa, eta horregatik ere pozten gara. Dirudienez hiruren artean jokatzeko dute».

Gipuzkoako ordezkariak

deitu zieten sari bat eman zutela azalduz. Hortik gutxira saridunak deitu zuen; «saria nola kudeatu behar zuen jakin nahi zuen», esan du Goikoetxeak, «eta txartela bere banketxera eramateko esan genion, handik kudeatzen». Ez da lehen aldiz sari garrantzitsu bat ematen dutela loteria administrazio horretan. Iazko zozketan Espainiako Loteria Nazionalaren hirugarren saria eman zuten. *La Primitiva* zozketan beste lau sari handi eman dituzte: 3,8 milioi eurokoa 1997an, 1,5 milioi eurokoa 2000an, 1,4 milioi eurokoa 2001ean eta 1,1 milioi eurokoa 1999an.

Krisi ekonomikoa dela eta, apustuak egiten dituen jende kopurua ez dela gutxitu esan du Goikoetxeak. «Jokatzeko den diru kopurua gutxitu da. Lehen hamar euro jokatzeko zituenak, egun erdia-euro jokatzeko dute», adierazi du.

Irudia



JESUSEN BIHOTZAREN ETA HIRUKIDEREN EKITALDIAK

Iragan astean ospatu zuten Villabona eta Zizurkilgo Jesusen Bihotza Ikastolako ikasle eta irakasleek, Kultur Astea. «Arrakasta handia» izan duela aurtengoak adierazi dute, eta «oso pozik» daude ikastola osatzen duten kide guztiak. Irudian, igandean egindako ibilaldi neurtuko talde bat ikus daiteke. Bestalde, Tolosako Hirukide ikaste-

teak Giza Eskubideen Astea burutu zuen. Antolatutako ekintzen artean, besteak beste, ikasleekin gelan jorrotutako gaiak nabarmendu dituzte. Bestetik, aste osoan zehar Trianguloan postontzi erraldoia jarria izan zuten. Bertan egungo krisiari nola aurre egin eta gure agintariei zer eskatuko lieketen proposamenak jaso dituzte. HITZA

Zergetan hobariak dituztenentzat aurkezteko epea zabaldu dute

Familia ugariarentzat eta gutxieneko soldata baino gutxiagoko diru sarrerak dituztenentzat izango dira hobariak

I. Terradillos Ibarra

Ibarrako Udalak adierazi duenez, hobariak izango dira familia ugariarentzat nahiz lanbidearteko gutxieneko soldata baino gutxiagoko sarrerak dituztenentzat, udal zergetan.

Familia unitate bakoitzeko 2013rako indarrean dagoen lanbidearteko gutxieneko soldata (645.30 euro) baino gutxiagoko diru sarrerak egiaztatzen dituzten pertsona fisikoak salbuetsita egongo dira zabor-bilketagatik tasa ordaintzetik, eta uraren kontsumoagatik eta estolderia erabiltzeagatik tasan hobaria izango dute.

Kasu horretan, familia unitatez hartuko dira, etxebizitza berean bizi, eta beren artean nolabaiteko harremana duten pertsonak. Famili unitatearen kide guztiek Ibarrako erroldan egon beharko dute. Eskaerarekin batera nortasun agiria, familia unitatearen kide guztien diru sarreraren ziurtagiria, 2012ko uraren ordainagiriak eta zabor-bilketagatik ordainagiria aurkeztu beharko dira.

Bestalde, familia ugarien kasuan, 2013 urteari dagokion Ondasun Higiezinaren gaineko zergen hobaria eskatzeko epea ireki dela jakinarazi du udalak. Hain zuzen ere, zergaren %50eko hobaria aplikatuko zaie.

Bi kasuetan, eskaerak otsailaren 24a baino lehen aurkeztu beharko dira, Ibarrako Gizarte Zerbitzu sailean, asteleheneetik ostiralera 09:00etatik 14:00etara. Informazio gehiagorako, 943 67 04 15 zenbakira deitu ahaliko da.



Ibarrako Gaztetxeak 20 urte bete ditu. R. CALVO

Ibarrako Gaztetxearen 20. urteurrena ospatzeko ekitaldi sorta antolatu dute

Otsailaren 15ean 'Aktibo toxikoa' antzezlanaren izango da; apirilean egingo dute urteurren festa

Iñigo Terradillos Ibarra

Ibarrako Gaztetxeak 20 urte bete ditu, eta Gazte Asanbladak urteurren hori era berezian ospatu nahi du. Hala, urte osora hedatuko diren ekitaldiez gozatzeko aukera izango da, ekitaldi nagusia, urteurrenoko festa, apirilean izango delarik.

Ibarrako Gazte Asanbladatik azaldu dutenez, «erronka» moduan hartu dute urteurrena: «Urtero antolatu ohi ditugu ekitaldiak, baina kasu honetan, gaztetearentzat urte berezia dela kontuan hartuta, bizi gehiago eman nahi izan diogu, egitarau zabalagoa prestatuz».

Egitarauari iragan larunbatean eman zitzaion hasiera, hiru

kontzerturekin. Hurrengo hitzordua, berriz, datorren igandean izango dute. Urtero moduan Tolosaldeko Inauterietara joango dira moztorturik. Bestalde, otsailaren 15erako *Aktibo toxikoa* antzezlanaren aurreikusitako dute, 19:30ean. «Patxi Santamaria aktore zarauztarra igoko da taula gainera, eta krisiaren inguruko umorezko bakarrizketa modukoa egingo du, dantza, mimoa edo klowna uztartuz».

Martxorako Subegi elkartearekin batera elkarlanean festa egun bat antolatu dute, eta apirilera aurreikusitako dute 20. urteurrena ospatzeko jaia. «Seguruenik bazkari bat egingo dugu, gaztetxetik igaro diren belaunaldi guztiak elkartuz, eta zuzeneko musika ere izango da», adierazi dute Gazte Asanbladatik. Gainerakoan, hila-betero izango dira ekitaldiak.

Gazteen topagune

Egun, 16 eta 22 urte bitarteko 20 lagun inguruk hartzen dute parte Ibarrako Gaztetxearen egunero

ko jardunean. Gazte Asanbladatik diotenez, «herriko gazteak biltzeko, kezken eta arazoaren inguruan hitz egiteko eta mugiarazteko gune bezala sortu zen». «Oso garrantzitsutzat» dute gaztetxea Ibarra, eta agian hura gabe gazteek Tolosalde joan beharko luketela uste dute. Bada, gazteen topaleku izateaz gain, herriari bizia ematen diola nabarmentzen dute, «asko baitira urtean zehar antolatzen diren ekintza alternatiboak».

Belaunaldi helduagoek lekuak ematen diete ondorengoei, eta azaldu dutenaren arabera gazteagoak ere gerturatzen ari dira, beraz, «herriaren badago jarraitzeko prest dagoen jendea».

Aurrera begira, berriz, «gogotsu» daude, eta aurturteurrenaren harira hartuko duten dinamikarekin jarraitzea da euren asmoa. «Guztia aurreikusi bezain ondo joatea, eta bide beretik jarraituz gaztetxea urtetik urtera bizirik mantentzea da guztion helburua eta nahia».

Aurrera Saiazkoen partidak, asteburuan

EUSKADIKO TXAPELKETA

■ **Gaur, asteazkena.**

- Beotibar, 19:30, Aurrera Saiaz (A. Urdapilleta)-Arrasate.

- Beotibar, 19:30, Aurrera Saiaz 1 (Zaldua)-Urduliz.

- Beotibar, 19:30, Aurrera Saiaz 2 (E. Aburuza)-Markina.

- Beotibar, 19:30, Aurrera Saiaz (Peña-Mendia)-Markina.

■ **Etzi, ostirala.**

- Beotibar, 20:30, Aurrera Saiaz (Perez Albeniz)-Zugarralde.

- Beotibar, 20:30, Aurrera Saiaz 1 (Larrea-Erasun)-Olaburu 1.

■ **Larunbata.**

- Markina, 18:30, Markina 1-Aurrera Saiaz (E. Labaka-I. Labaka).

- Huarte, 11:30, Huarte-Aurrera Saiaz (Artola-Arratibel).

Rojo anaiek irabazi dute 34. Marxa Beret iraupen eskiko proba

I. Terradillos Tolosa

Emaitza bikainak lortu zituzten Tolosaldeko Rojo anaiek iragan asteburuan iraupen eskian. Marxa Bereten eta Sprint Salomon proban parte hartu zuten, eta berriak izan ziren helmugara iritsen lehenak.

34. Marxa Beret izan zen igandean, Espainian iraupen eskian dagoen lasterketa garrantzitsuenak, eta Euroloppet zirkuitoan sartuta dagoena. Partaidetza handia izan zuen, tartean euskaldun eta tolosaldekoak. Lasterketa hasieratik Imanol eta Joseba Rojo aurretik jarri ziren, eta helmugara elkar hartuta iritsi ziren.

Lasterketa horren bezperan, berriz, Sprint Salomon proban lehiatu ziren. Imanol Rojo izan zen irabazlea eta bere anaia Joseba jarraian sartu zen helmugan.

● Hilberriak eta urteurrenak

ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info



BIXI IRASTORZA IRAZUSTABARRENA

(Anestesista Anestesiaren Aitzakia)

Heneraurren hil zen, 84 urte zituela.

Elizateko eta Aita Santuaren Federakapena hartu ondoren

- Golan bego -

Seme-alabak: Maixa eta Juan Mari Kortabarria (1), Jose eta Juli Aranburu; bilobak: Eñaut, Amaia, Zuhaitz, Iratxe; anaiak: Jose Mari (1); bilobak, lehenengoak eta gainerakoak afak.

Familia osoa: Bixi Irastorza eta Joseba Irastorza; seme-alabak eta GAITZ arazkoak: ARRAZALDEKO ZAZPIETAN, ANDRE MARI ZERLURATUAREN elkarrekin egingo den hitzartzearen parte garrantzitsua da. Elkarrekin asko aldez aurretik.

Basak, 2013ko otsailaren 6a

Hilabete: Zaldunak, 3-40.

Ohar: Gorputzaren osasunari buruzko informazioa.



13°
7°

GOIZA	EURIA
ARRATSALDEA	EURIA
BEROENA	12°
HOTZENA	7°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Eneritz Maiz
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info
Ibarra: 687 410 118. ibarra@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info

Tolosa Herria Hedabideak SM-ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK



Galtzaundi euskara taldea



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Arnezketza, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Txupinazoa zuzenean ikusteko aukera HITZAren webgunean

'tolosaldea.hitza.info' web orrian eskainiko dira Tolosako jairik zoroenen hasierako minutuak

Erredakzioa Tolosa

Azken bi urteetan egin moduan, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkariak Tolosako inauterien hasierako txupinazoa zuzenean eskainiko du tolosaldea.hitza.info webgunean. Bihar, 11:45etik aurrera hasiko da zuzeneko saioa.

Bihar, hau da, Ostegun Gizenean bertan egin ezin dutenek Internet bidez Tolosako jairik handien eta zoroenen hasierako minutuetan bizi den giroaz gozatu ahal izango dute. Txupinazoa aurretik plazan dagoen giroa

eskainiko da, eta ondoren etorriko da Kabi Alai elkartekoek irakurriko duten pregoia eta festen hasiera iragarriko duen suziria. Kasu honetan, Poca Tripa txaranga kideak igoko dira udaletxeko balkoira. Eta txaranga doinu-eritmorra hustuko da plaza.

Informazio guztia sarean

Inauterietako informazio guztia sarean zintzilikatuko da, eta tolosaldea.hitza.info helbidean sartu eta Inauteriak 2013 atalean ikusi ahal izango dira. Egunez egun, argazkiak, bideoak, albisteak, elkarriketak izango dira ikusgai.

Udalaren eta txosna batzordearen egitarauak, garraio publikoaren ordutegiak eta farmaziak ere eskura izango dira. Egun bakoi-dien zein eguraldi egingo duen ere ikusi ahal izango da. Iragarpenen arabera, Ostegun Gizenetik igandera bitartean, euriak ez du



Goizean goizetik, atzo, zezen plazako sarrerak erosteko jendea Leidorren ilara egiten ikus zitekeen. I. GARCIA LANDA

atsedenik emango. Ostarreak izango badira ere, euri arriskua izango da nagusi, eta temperatura hotzak izango dira 13 gradutik gora ez baita pasako.

Facebook eta twitter bidez ere jarraitu daiteke. Tolosaldeko eta Leitzaaldeko Hitza orrialdean atsegin dut emanez eta twitterren @hitzatolosaldea jarraituz.

Egun zoro hauen berri emateko asteazkenera bitartean egunero argitaratuko da HITZA egunkaria. Lan taldearen atsedean eguna, hilaren 13an, asteazkenera izan-

go da, eta beraz, hilaren 14ean ez da alerik argitaratuko.

Udaltzaingoaren gomendioak

Tolosako udaltzaingoak hainbat gomendio eman nahi izan ditu Tolosara gerturatuko direnentzat. Hasteko, beraien eguneroko geltokia aldatuz ibilbide luzeako autobusak Zumardi txikian gertuko direla adierazi dute.

Nola ez, Tolosara joateko garraio publikoa erabiltzeko eskatu dute, eta autoz etorri gero, San Estebanen eta Usabalen dauden

aparkalekuak erabiltzeko deia egin dute. Bestalde, Larramendiko lanak direla eta, jendeari Tolosako beste bi sarrerak erabiltzeko eskatzen diete. Gainera, urteroko lapurreta txikiak ekiditeko jendeari kalera behar dutena baino ez ateratzeko eskatu diete. Herriguneko tren geltokiari dagokionean, itxita egongo da, gauez, igandean, astelehenean eta asteartean.

Eta bukatzeko, saltokiei adin txikikoei alkoholik ez saltzeko gora ekarri diete.

Agurrak



Urte askoan!

Sugaar Zapirain Larrañaga. Gaur zure urtebetetze eguna, zuk zenbatuko zenitun bezala, one, two, three, 3 urte handi. Ondo pasa aitaxo Inigo, amaxo Agurtzain, Saiorise, lagunak eta ingurukoekin. Zorionak txapeldun. Zaindu arrea. Ibarrik amona M^a Pilar eta osaba Josu.



Zorionak!

Nahia Ortiz Vicente (Larraul).

Otsailaren 1ean 7 urte. Zorionak sorgintxo, etxeko guztien partetik eta bereziki aita, ama eta anaia Inharren partetik.

AGURRAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info



Agenda

BESTELAKOAK

- **Tolosa.** Gaur, 20:00etan, Tolosa Kantariko prestakuntza entsegua izango da musika eskolako aretoan. Herritar guztiak gonbidatuta daude.
- **Ibarra.** Gaur, 18:30ean, ez ohiko batzarra egingo dute Ibarra-ko udaletxeko pleno aretoan. Gazteen etxebizitzaren esleipen ingurukoak izango da.

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Egunekoa: Bronte, C. Korreo kalea, 20. Telefonoa: 943 67 60 13. Gauekoa: Santa Maria, 1. Nafarroa etorbidea, 2. Telefonoa: 943 65 46 10.
- **Leitza.** Larraia, M. I. Elbarren, 95. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanena eta iritzien erantzukizunik.